

Desberdintasun ekonomikoak

1 Disparekotasunaren trataerari buruzko sarrera.

2 Disparekotasunen mugak.

3 Disparekotasuna eta pobrezia.

5 Ekidadearen mugak.

1 Disparekotasunaren trataerari buruzko sarrera.

Disparekotasuna orokorrean, eta errenta eta aberastasunaren disparekotasuna modu berezian, garapena lortze bidean aztertzeko hainbat arrazoi daude. Baina disparekotasunaren kontzeptua oso konplexua da eta amaiera gabeko eztabaida sorrarazi dezake: zein da bere edukia eta esanahia; zeintzuk dira jasangaitzak diren disparekotasunak; gizarteak berdintasunaren bidean jarri beharko lituzkeen helburuak zehaztea, etab. Orduan, zein disparekotasunaz ari garen zehaztea komeni da.

Ohikoena disparekotasun ekonomikoak azterzea izan da. Baliabide ekonomikoen banaketa hartu izan da ongizatea lortzeko pertsonak duten aukerak islatzeko adierazle egoki gisa. Baina honek ez du arazoa erabat konpontzen. Izan ere, bi pertsonen errenta berdina izan arren bere bizitzak oso disparekoak izan daitezke gainontzeko aldagaietan egoera ezberdin batetan izanez gero, bai gaixotasunen alorrean, zein ezaugarri pertsonaletan, edota gaitasun eta inguru politiko eta sozialean. Muga hauek kontutan izanda ere, eta jakirik gaitasun eta askatasun mailan ematen diren egoera guztiak islatzen ez direla, disparekotasun ekonomikoetaz arituko gara, bai herrialdeka bai nazioarte mailan.

Disparekotasuna ulertzeko ikuspegi anitzak dira, baina edozein kasutan bi multzo nagusitan sailkatu ditzake: batetik, disparekotasunaren gaineko ikuspegi indibidualistak eta bestetik, izaera kolektiboko ikuspegiak.

Lehenengo multzokoak, orokorrean, disparekotasunak aurrez zehaztutakoak direla eta beraiengan Estatuak gutxi egin dezakeela mantentzen dute. Disparekotasuna gizartearen berezko ezaugarria dela gizarteak hasieratik norbanako desberdinen batuketak diren heinean. Ezberdintasunak eskura dituzten baliabide ekonomikoetatik hasi eta arlo guztietako norbere ezaugarri pertsonaletaraino ematen direla, eta ondorioz, disparekotasun ekonomikoak ez dira herrialde kapitalisten berezko arazo, norbanakoen izaeraren berezko arazo baino. Are gehiago, bakoitzak lanerako eta arriskuak hartzeko duen grinaren inguruan dauden ezberdintasunak sortzen dutela disparekotasun ekonomiko horiek, norberaren hautaketa askearen ondorio, alegia. Azkenik, adinari ere garrantzi handia ematen zaio. Bizitzaren araoaren arabera norbanakoaren ahalmena eta gaitasuna errenta eta gainontzeko baliabide ekonomikoak eskuratzeko ezberdina da eta horrek berez disparekotasunak eragiten ditu norbanakoen artean, gizarteko disparekotasunetan islatuz.

Badira zenbait arrazoi disparekotasunak aztertzera bultzatzen gaituztenak. Lehenik badira arrazoi etikoak, moralak eta filosofikoak disparekotasun larriak arbuiatzeko edo gutxienez berdintasun maila jakin bat desiratzeko. Mugak non dauden zehazteko orduan gizartearen artean eta denbora zehar aldeak izan badira ere, bada uste bat disparekotasunak mugak izan behar

dituela. Are gehiago herrialdeen garapenaz ari garenean. Garapenaren kontzeptuak disparekotasunari buruzko ikuspuntua izan behar du nahitaez.

Bigarren, arrazoi etiko-moralik ezean ere disparekotasunak arreta eskatzen du bilakaera ekonomikoan eta garapenean eragina duelako. Eta eragin hori aztertu behar da. Izan ere, disparekotasun ekonomiko handiegiak hazkunde ekonomikoa bera zalantzan jar dezake, edo hura sustatu. Harremana eta eragina dagoela argi dago, loturaren norabidea zein den argi ez badago ere¹.

Bestalde, baliabide ekonomikoen banaketa aztertzerakoan oso kontutan hartu behar da fluxuen (sarrera, gastua edo aberastasuna) banaketa zer nolakoa den, baina baita ere fluxu horien jatorria. Zein motatako jardura ekonomikoen ondorioz lortuak izan diren errenta horiek. Izan ere, baliabideen banaketaren emaitza epaitzeko orduan, egokia edo arbuigarria den alegia, emaitza hori nola izan den lortua garrantzitsua da. Hau da, errentaren banaketa funtzionalak argibideak ematen ditu disparekotasunaren eta garapen edo hazkunde ereduaren inguruan. Ondorioz, disparekotasun ekonomikoak zelan sortu diren jakiteko ezinbestekoa da produkzio faktore horien jabe goaren banaketa eta faktore bakoitzaren ordaina nolakoa izan den jakitea.

Azkenik, garapen ekonomiaren analisiaren baitan oso toki garrantzitsua betetzen du herrialde edo erregioen arteko disparekotasunak aztertzea zeren horrek mundu mailan eskuera dauden baliabide ekonomikoen kopurua ikustea ahalbidetzen du. Gizateriak bere osotasunean dituen erronkei aurre egiteko adinakoa denentz ikustea ahalbidetzen du. Herrialdeen garapen eta azpigarapen maila baliabideen eskasian baino baliabideen jabe go, kontrol eta banaketa disparekoan oinarritzen dela agertaraziko du. Orain bai, nazioarteko alderaketa hau zentzuzkoa izan dadin, errenta fluxu horien balorazioa eros ahalmen berdintsua duten monetan egin behar dira.

2 Disparekotasunen mugak.

Egungo egoera disparekoa baloratzeko orduan adostasunik dagoen eta honek izan behar dituen mugak zehazteko nazioarteko erakundeen ikuspuntua oso ezberdina da. Disparekotasun maila garaiaiatik kezkatuta daudela esateaz gain, ez dago inongo adostasunik disparekotasun honen maila noraino murriztu behar den. Izan ere, helburu horiek adostea eta zehaztea zaila egiten da berdintasunaren erreferentea zein den ez dagoenean, eta edozein helburu zehazteak dakarren konpromezua onartzeko borondaterik ez dagoenean.

Disparekotasunak ez dira berez sortzen, indarrean dauden joko arauen, eta pertsonak edo herrialdeek dituzten hornidura natural edo historikoen ondorio baizik. Errentaren banaketa disparekoa gutxitzeko saiakera orok joko arau horiek aldatu behar ditu nahitaez. Hau da, errentaren banaketa zuzenagoa lortzen saiatzeak indarrean diren botere harremanak aldaraztea suposatzen du.

¹ Kuznetsek plazaratutako teorian hasieran hazkundeak ezinbestean disparekotasuna behar zuen eta denborarekin banaketa parekatuko zela zioen; Egindako hainbat ikerketa enpirikoetan ordea, disparekotasunak arindu ezezik areagotu ditu hazkundeak. Baina, Hego-Ekialdeko Asiako herrialdeen esperientziak hankaz gora jarri du aurreko uste osoa. Hauetan hazkunde garrantzitsua eta errentaren banaketa parekoa aldiberean eman dira.

Hori guztia kontutan izanda ikusi beharrekoa zera da, errentaren disparekotasunen mugak zeintzuk diren zehaztea eta hauen arabera ebaluatzea edozein politiken lorpenak. Baina, disparekotasuna gutxitzeko helburua banaketa berdintsu batetara iristea al da?, Zeintzuk dira zuzentasunaren inguruko helburuak ezartzea ahalbidetzen duten irizpideak?, zelan zehaztu dezakegu zein den bilatu behar den errentaren banaketa? Horretarako, agian, ez da bide txarra banaketa ideala baino jasangaitzak eta sostenga ezinezkoak diren disparekotasunak zehaztea. Zein disparekotasun mota diren arbuigarriak, eta ondorioz, zuzenduak izan behar duten, alegia. Ikus dezagun zeintzuk izan daitezkeen gutxienezko horiek.

2.1 muga politikoak.

Ez dago zalantzarik ikuspuntu politiko batetik disparekotasunak mugaren bat izan behar duela. Disparekotasunaren areagotzeak indarrean dagoen boterearen aurkako mugimenduak eragin ditzake, errebolta edo gizarte eztaidak esaterako. Kasu batzutan horrela izan da, disparekotasunak beraiek izan dira prozesu iraultzaileen abiapuntua. Ondorioz, mota honetako gertakizunak gauzatu ez daitezkeen ohikoa izan da gizarte mailako erreformak abiaraztea disparekotasuna gehiegizkoa gertatu ez zedin. Horregatik, edozein erregimen politikoren egonkortasuna bermatzeko disparekotasunak zenbait gutxienezko muga errespetatu behar ditu. Are gehiago ezegonkorragoak diren herrialde txiroenetan (Stewart 2000).

Orain bai, mugak izan behar direla onartzeak bakarrik ez du berez muga horiek zehazten laguntzen. Izan ere, mehatxua gauzatu aurretik zeintzuk diren muga horiek zehatza oso zaila da. Are gehiago, kezka honetan oinarritzen diren errentaren birbanaketaren aldeko politikak mehatxuaren arriskua ikusi ondoren bakarrik jartzen dira indarrean, arriskua benetan gauzatu ez dadin helburu bakarrarekin. Ez dute disparekotasuna benetan murriztea helburu. Ez dira zuzentasunaren erreferente baten ondorioz aplikatzen, baina gutxienezko muga baten beharra argi islatzen dute.

Sistemaren egonkortasunari begira nazioarteko erakundeetan kezka sortu dutenak ez dira izan disparekotasunak beraiek, hauen adierazpen gordinena den pobrezia baino. Camdessus NMF-ren lehendakari-ohiak adierazi bezala pobrezia hedapena da sistemak izan dezakeen etsai behinena. Azkenaldian nazioarteko erakundeak disparekotasunen gainean egindako adierazpenak erretorika hutsa diren edo hauek nazioarteko ordenuan izan ditzaketan eragin ezegonkortzaileetaz benetan kezkatzen hasi diren ikusteko goiz da oraindik.

2.2 Muga ekonomikoak.

Analisisa ekonomikoaren baitan sarritan aztertu da hazkunde ekonomikoari buruzko helburuak eta zuzentasunaren inguruak nola bateratu. Izan ere, bi helburu horiek elkarren aurkakoak zirela uste izan da luzaroan, bata edo bestearen aldeko apustua egin behar zela nahitaez argudiatuz. Berezi garabideetako herrialdeen kasuan, errentaren birbanaketaren aldeko politikak hazkunde ekonomiko garrantzitsua eta sostengatua lortu arte itxaron behar zutela aldarrikatu izan da. Ikuspuntu hau Kuznetz-ek abiarazi zuen hazkunde ekonomikoa eta disparekotasunen arteko harremanak bilakaera zehatza zuela aldarrikatu zuenean. Honakoa hain zuzen ere: hasieran hazkunde ekonomikoa lortu ahal izateko derrigorrezkoa da disparekotasunak areagotzea eta behin hazkundera sendotu eta egonkortzen denean bere fruituak gizartearen zehar banatzeko aukeran dagoela ekonomia, eta ondorioz, epe luzera disparekotasun horiek arindu egiten direla. Oso iragan hurbila arte arlo teorikoan nagusitu

den ikuspuntua izan da. Bi helburu horien arteko kontraktasuna onartzeak disparekotasunen inguruko helburuak bigarren mailan geratzea eragin du, birbanaketaren aldeko politikak etengabe atzeratuz.

Kuznetzen aldarrikapen teoriko honek ikerketa asko eragin ditu maila enpirikoan frogatzeko, eztabaida akademiko sakona sortuz. Herrialde ezberdinen hazkunde tasak eta disparekotasunen egoera aztertuz bi helburu ekonomiko horien arteko kontraktasuna errealitatean ematen denentz ikusi nahian. Disparekotasunari buruzko datuak urriak eta sarritan beti ez oso fidagarriak izan badira ere, hasierako ikerketek Kuznetz-en teoriaren aldekoak baziren ere, egun oso zalantzan dagoen ikuspuntua da. Izan ere, azken urteetako ikerketek (Temple 1999) disparekotasuna hazkunde ekonomikoa sustatzen duen aldagaia baino oztopo gisa ikusten da nagusiki. Bi aldagai hauen arteko erlazioa ez dela hasieran usten zen bezain argia eta bide bakarrekoa nagusitzen joan den ideia da (Gouddie eta Ladd, 1999).

Are gehiago, maila teorikoan egindako ekarpenek ere, zalantzan jartzen dute disparekotasuna murriztea eta hazkunde ekonomikoaren arteko kontraktasuna. Putterman, Roemer eta Silvestre-ren (1998) esanetan errenta birbanaketaren aldeko politikak efizientzi galerak sortzen dituztela zalantzan jartzen dute. Hauentzat ohiko ekonomi teoriak ez ditu nahiko froga eman modu efiziente batetan hazi ahal izateko nahitaezko denik errentaren banaketa disparekoa izatea edo jabego pribatu mugagabea behar denik ezinbestean. Are gehiago, informazioa asimetrikoaren eta pizgarrien inguruko teoriak errentaren banaketa parekoa eta hazkundearen arteko harreman onuragarrien gaineko adibide anitz eskaintzen dutela azpimarratzen dute. Zentzu berean, Bourguignon-ek (2000) esaten du merkatuen inperfekzioen inguruko azken analisiek, instituzio zehatzen funtzionamendu ezak edo kaskarrak, birbanaketaren alde endogenoak eta aktiboen banaketek, faktore hauek guztiak kontutan hartuta hazkunde ekonomikoa eta birbanaketa ez daudela beti eta erabat elkarren aurka ondorioztatzen du. Horrela, zerga progresiboen bitartez finantzatutako birbanaketa politikak, non pobreen aktiboak gehitzen dituzten, hazkunde ekonomikoa zapuztu beharrean sustatu dezaketela, eta pobrezia gainditzen lagundu aipatzen du.

Bestalde, II Mundu Gerra osteko Europako eta Ekialdeko Asiaren esperientziak ere argi erakusten dute hazkunde ekonomikoa banaketa nahiko parekoekin ere lor daitekeela. Aldiz, laurogei hamarkadatik aurrera merkatuen liberalizazio politikak disparekotasunak nabarmen areagotu dituztela ikusi dugu.

Latinoamerika adibide garbia da zentzu honetan. Bertan errentaren banaketa oso disparekoa denez, hainbat ikerketa egin dira disparekotasun honen eta hazkunde ekonomikoaren arteko harremana aztertzeko, hauen artean Garapenerako Banku Interamerikarrak 1999. urtean eginikoa dugu erakusle. Honen aburuz, errentaren banaketa disparekoak giza kapitala eta kapital fisikoaren metaketa ahultzen du. Ez du aurkitzen inongo arrazoirik hazkunde ekonomikoak derrigorrez errentaren banaketa disparekoa behar duenik esateko.

Aztertu ditugun literatur guztiak errentaren banaketa disparekoa eta hazkunde ekonomikoaren artean harreman zuzena dagoela mantentzen duen diskurtsoa oinarri sendorik ez duela argi utzi du. Ondorioz ez dago inolaz ere argi ekonomi garapena lortzeko hazkunde ekonomikoa hobetsi behar denik, birbanaketa neurriak atzeratuz. Izan ere, herrialde baten errentaren banaketan ematen diren emaitzak bertan indarrean jarri den hazkunde ekonomikoaren ereduaren ondorio dira. Ez dago alde zuzenik bien arteko harremana zein izan behar duen

zehazterik. Errentaren banaketaren inguruko egoera zehatza analisisia ekonomikoan integratu behar da eta hortik abiatuta bien arteko eraginak aztertu. Noiz diren onuragarriak eta zein egoeratan kaltegarriak. Horregatik, argi utzi behar da merkatuak ondo funtzionatu ahal izateko disparekoak izan behar dutela, berdintasunak efizientzia galera dakarrela, sarritan entzuten diren mota honetako iritziek, ez dutela oinarri teoriko ez enpiriko egokirik, batzuen pribilegio eta boterea mantentzeko sortzen den diskurtsoa baino ez dela.

3 Disparekotasuna eta pobrezia.

Disparekotasunak izan behar dituen mugak ikuspuntu honetatik ere aztertu daitezke: pobrezia murrizteko behar den hazkunde ekonomikoa lortzeko bidean disparekotasunak izan duten eragina ikustea. Disparekotasunak eta pobrezia bi kontzeptu ezberdinak dira; nahastea komeni ez diren errealitatearen bi alor ezberdinak adierazten dute. Baina aldi berean bi kontzeptuen arteko erlazioa indartsua da bien jatorria eta bilakaeran eragiten duten prozesuak aztertzen ditugunean.

Pobrezia gainditzeko bide bat zera litzateke: errentaren birbanaketa politika zehatza indarrean jartzea non aberatsenen baliabideak pobreen errentak pobrezi muga gainditzearaino erabiltzea. Noski birbanaketa politika honek pobrezia gainditzeko lor dezan beharrezkoa da aberatsenek dituzten baliabideak pobre denek pobrezi muga gainditzeko adinakoak izatea da; herrialde gehienetan, oso txiroetan ezik, gertatzen dena, alegia.

Bestalde pobrezia gainditzeko eraginkorra den edozein politikak mota bateko edo besteko birbanaketa doikuntza behar du. Izan ere, pobreziaren inguruko adierazleak modu nabarmenean eta sostengatuak hobetu dituzten herrialdeen esperientzi guztietan, produkzio baliabideen banaketa, edo ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko bide parekoagoak lortzeko erreforma sakonak egin izan dituzte, Hego Korea eta Taiwan honen adibide hurbil eta esanguratsuak izanik.

Pobrezia eta disparekotasunaren arteko harremana argiago egiten da hazkunde ekonomikoarekin lotzen denean. Ez dago zalantzarik hazkunde ekonomikoa erabakiorra dela pobrezia murrizteko, baina ez modu zuzen eta automatikoan. Hazkundeak pobreziaren murrizketan duen eragina ezberdina izango da hazkundearen eredua eta indarrean dagoen banaketaren egituraren arabera. Zenbat eta hasierako banaketa egitura disparekoagoa izan, edozein hazkunde tasaren eragina pobreziaren murrizketan ahulagoa izango da. Are gehiago, hasierako banaketaren egitura oso disparekoa bada, hazkundera garaia izanda ere pobrezia areagotzea eta ez murriztea eragin dezake.

Harreman hau aztertzeko pobreziaren elastikotasunaren kontzeptua erabiltzen da, hots, NPGren hazkunde tasak pobrezia maila murriztean duen eragina neurtzen du. Elastikotasun indize honen balioa bata bada esan nahi du hazkunde eredu hori eraginkorra dela pobrezia murrizteko. Aldiz, bata baino txikiagoa bada hazkunde tasa oso garaiak behar direla pobrezia murriztu ahal izateko. Horrela Saharazpiko Afrikako herrialdeetan non pobreziaren elastikotasuna egun bata baino txikiagoa dela uste den, herrialde horietan eta non populazioaren hazkundera % 3ko hazkunde tasa duen, pobrezia murrizteko NPG-ren % 6-9 arteko hazkunde tasak beharko lirateke. Beraz, errentaren banaketa parekoa ahalbidetzea funtsezkoa da hazkunde ekonomikoak pobrezia murrizten lagunduko badu. Izan ere, pobreziaren elastikotasuna garaiagoa da errentaren banaketa parekoa duten herrialdeetan.

Aitzitik, Latino Amerikan, erregio mailan errentaren banaketa disparekoena duena, disparekotasun garaiak oztopo ugari sorarazten ditu pobrezia gaintzeko bidean. Horrela, herrialde batzuentzat %3ko hazkunde tasa lortu arren berrehun urte beharko lirateke pobrezia gaintzeko banaketa egitura disparekoak, eta ez pobreziaren lubakia sakona, direla medio (Lustig & Deustch, 1998).

Hasierako banaketaren egitura parekoa edo disparekoa den kontutan hartzeaz gain, honen bilakaera nolakoa den, hazkunde ereduaren arabera, ere garrantzitsua da. Izan ere, hazkundearen ereduak hasierako banaketaren egitura parekoago edo disparekoago bihur dezake. Zein faktorek eragiten duten egungo banaketa egiturak disparekoagoak izan daitezen eta gertaera honen eta pobreziaren iraunkortasunaren artean dagoen harremana ez du erabat argitu ekonomi teoriak oraindik. Disparekotasunen zergatien inguruko ohiko teoriak honako faktoreak kontutan hartzen zituen: lurraren eta baliabide naturalen jabetzaren kontzentrazioa, hezkuntzarako sarbide disparekoa, ea, garrantzitsuak bai baino nahikoak ez direnak inondik ere. Gertakizun gehiago eman behar izan dira egun dauden disparekotasun maila garaiak azaldu ahal izateko. Gertakizun hauek zeintzuk izan diren ezagutzea beharrezkoa egiten da disparekotasunak ulertu nahi badira behintzat. Corniak (1999) honako hauek aipatzen ditu: aurrerapen teknologikoen azkartzea, egiturazko doikuntza egitasmoak, merkatal arloko liberalizazio prozesuak, finantza liberalizazioaren eragina, Estatuaren funtzioen ahultzea, ea.

Laburbilduz, egun nazioarteko instituzioak pobreziarekin bukatzeko egiten dituzten proposamenak aztertzerakoan errentaren banaketaren egitura aldatzeko proposamenik egiten dituztenentz ikusi behar da; birbanaketa proposamen bat izan ezean zaila da emaitza onik lortuko dela ustea eta estrategia sinesgarri gisa hartzea.

4 Zuzentasunaren (Ekidadearen) mugak.

Disparekotasun maila neurtzeko erabiltzen diren edozein adierazlek ez du berez banaketa hori bidezkoa edo jasangaitza den adierazten. Non edo noiz bihurtzen da disparekotasuna bidegabea? Erabateko berdintasuna bilatzen dituzten planteamenduetan kenduta- hemen berdintasun egoeratik aldentzen den edozein banaketa da bidegabea eta bere larritasuna berdintasun egoeratik aldentzen den zenbatekoa litzateke-, ez daude erreferentzi argiak, eta denek onartzeko modukoak, disparekotasunen egokitasuna ebaluatzeko.

Horregatik galdera hau egitea beharrezkoa da: non, zein mailatan bihurtzen da disparekotasuna jasangaitza, bidegabea, bere gainean neurriak hartzea beharrezko delarik? Onarpen zabala izan dezakeen erantzuna honakoa da: bere bizitza arriskuan egoterainoko pobrezia egoera larriak ematen badira, orduan eskuhartzea beharrezkoa da. Gutxienezko irizpide honen aurka egotea zaila litzateke justifikatzea. Gutxienezko irizpide hau errealitatean praktikan jartzen den eta gabezi egoera horiei aurre egiteko behar diren neurriak hartzen diren beste kontu bat da. Baina gutxienez ikuspuntu etiko batetik, badugu onartezinezko disparekotasunak non duten muga bat, dituztenetatik biziraupenaren mugan direnei baliabideak transferitzea exigitzen duen gutxieneko bat, alegia.

Oinarri hauetatik abiatuta, disparekotasunen mugak zehazteko ahaleginak eredugarria den errentaren banaketaren egitura kontutan hartu beharrean, egoera larrietan direnen egoera kontutan izanda onartezinak diren gutxiengoak zehaztuz egin da bidea. Horrela, gutxienezko

horiek finkatzerakoan pertsonak noiz sartzen diren hondamendia pairatzeko arriskuan izan da jarraitutako bidea. Mende honetan zehar, hondamendi naturalak kenduta, disparekotasunen gutxienezko gisa hartuak izan direnak, nazioartean Mundu Bankuak ezarritako pobrezi muga, eta maila nazionalean, herrialdeko pobrezi mugak izan dira.

Zuzentasunezko helburuak jartzeko orduan izan den anbizio falta honek, birbanaketa politikak bakarrik erabilpen defentsiboa izatea ekarri du, hots, gizarteak pobrezia areagotu egin dela jabetzen denean eta momentuko egoera larri horri aurre egiteko asmoz eginikoak bakarrik. Pobreziaren adierazleak hobetzen direnean zuzentasunarekiko gizartearen kezka desagertzen da.

Mota honetako politika hauek nekez har daitezke birbanaketa politika oso giza. Dena den, posible da egun banaketaren egiturari buruz helburu normatiborik jartzea? Posible da zuzentasunaren ikuspuntutik helburuak jartzea? Zein izango da banaketaren egitura bidezkoa dela erabakitzeke erabiliko dugun irizpidea? Edo beste modu batetara esanda, zer da berdindu behar dena? Azken hiru hamarkadetan, ekonomilariak disziplina arteko eztabaidetan murgilduta izan dira berdintasuna eta zuzentasunaren arteko harremanaz. Zientzi politikoaren mailan eztabaida oso sutua izan da, Rawlsten “Justiziaren Teoria” lana agertu zenetik bereziki. Justizia definitzeko irizpide gisa proposatu diren erantzunak ezberdinak izan dira. Rawls-ek ondasun primarioen berdintasuna proposatzen du, Dworkin-ek pertsonak dituzten baliabideen berdintasuna, eta Roemer-ek, aukera berdintasunak aipatzen ditu (Roemer 1996). Ez dugu justiziaren gaineko proposamen bat egiteko asmorik, baina bai adieraztea disparekotasunen aurkako edozein estrategiak justiziaz ulermen zehatza izateak duen garrantzia. Hala ere ingurumari honetan ezin dugu ahaztu giza garapenaren ikuspegiaren ikuspuntutik agertzen den zuzentasun eta justizi ikuspegia. Ikuspegi honetan gaitasunetan oinarritzen den ongizatearen berrikusketa egin da. Horrela, ongizatea gaitasunetan oinarritzerik badago, gaitasun hauetan ere oinarritu daiteke zuzentasunaren gaineko irizpidea. Zuzentasunaren irizpidea orduan, pertsonen oinarritzko gaitasunak garatzean datza. Beste gauza bat da helburu horretan noraino joan daitekeen, gizarte ezberdinak eta nazioarteko erakundeak ildo horretan konpromezuak hartzeko prestutasunaren arabera.

Laburpen giza disparekotasunak izan behar duten mugak baloratzeko orduan hiru maila bereizi ditugu: a) gizartearen egonkortasuna bermatzeko beharrezkoak direnak; b) hazkunde ekonomikoa eta pobreziaren murrizketaren arloan emaitza onak lortzeko beharrezkoak direnak; c) justizia irizpideak kontutan hartuta beharrezko direnak.

Hau guztiarekin baditugu nazioarteko erakundeak eta herrialde ezberdinetako gobernuek erabiltzen duten disparekotasunaren inguruko analisiak aztertzeke bi erreferente nagusi. Batetik, zein da disparekotasunaz egiten duten balorazio ekonomikoa (hazkundera eta disparekotasunaren arteko harremanaz, banaketa egiturei buruz eta honen bilakaerari buruz; pobrezia murrizteko saiakerei buruz) eta bestetik, zein da erakunde horien justiziaren proposamen normatiboa.